

**09/20an, astelehena, ITSASU
& 22an, asteazkena, HELETA**

ETXALDE IDEKIAK

**Laborariak beren etxaldean
aurkitzeko parada bikaina !**

**2 etxalde, laborantza herrikoia
hainbat gai ilustratzeko**



**EUSKAL HERRIKO
LABORANTZA GANBARA**

Antolatzailea : Euskal Herriko Laborantza Ganbara

Izena eman : 05 59 37 18 82

Irailaren 20a, 14.30, ITSASU

**Instalazioa-transmisioa,
lurralde bizi baten oinarriak**

Aroztegia etxaldearen bisita. Ardi eta xerri hazkuntzan oinarritua den etxalde ttipi honetan, laborantza aktibitatea dibertsifikatzen eta enplegua sortzen jakin dute, baratzezain bat instalatuz. Duela urte bat, bi kide berri sartu dira etxaldean erretreta hartu zuten bi laborari ordezkatzeko. Heien lekukotasunak entzunen ditugu.

Helbidea : Aroztegia, Basaburu, 64 250 Itsasu
Izena eman : 05 59 37 18 82

Irailaren 22a, 14.30, HELETA

**Agro-oihangintza,
hesiekin behiak eta laboraria pozik !**

Ugo Arbelbide laborariaren etxaldearen bisita. Ugo 2019-an instalatu da, familiako etxaldean. *Blondes d'Aquitaine* arrazako behiak belarrean hazten ditu. Bere etxaldeko ateak idekiko dizkigu eta azaldu zergatik hesiak landatu dituen, joan den neguan.

Helbidea : Eiherazabalia etxaldea, 64 640 Heleta
Izena eman : 05 59 37 18 82